

Udaberriko lore tipikoa dugu primulazeo hau. Agian, irakurleak gogoratu du duela bi udaberri, genero berdineko San Jose lore goiztiarrari buruz idatzi genuena eta horregatik, espezie honen familia eta generoei buruz aipatutako ezaugarri orokorrak ez ditugu hemen berriro adieraziko.

J. Terés



Udaberri-loreari dagokionez, landare belarkara da, tamaina txiki-ertainekoa 10-30 cm-koa eta sustraietan errizoma motza izaten du. Hostoak landarearen oinean errotetan kokatzen dira.

Hostoaren gainaldea berde bizia da eta azpialdea berriz, gris-saska.

Loreak gara luzeen muturretan hazten dira eta ginbailak osatzen dituzte. Oso ugariak izaten dira eta kolore hori bizia dute. Altitudearen arabera, martxotik ekaina bitartean loratzen da. Fruitua, kapsula oboidea da eta hazi ugari izaten du bere baitan.

Udaberri-loreak, itsas mailatik mendi gailurretaraino eta leku desberdinetan aurki daiteke; horrela itsas labar, txilardi, larre, ezpeldi eta hariztietan bereziki, sakabanatuta egoten da. Nahikoa arrunta da Araba eta Nafarroan. Europan bestalde, banaketa zabaldua, Kaukaso eta Siberiaraino iristen delarik.

Espezie hau oso erabilia izan da sendabelar gisa, dituen gaien artean, primulina izeneko saponina eta glukosido desberdinak aipatzen dira. Landare honen zati guztiak erabiltzen dira eta erri-zomak dira preziatuenak. Hauek katarro, bronkitis eta gripearen kontra erabili ohi dira, oso espektoral ona direla diotelarik. Loreak berriz, diuretiko eta antiespasmodikotzat hartu izan dira eta hostoek C bitamina ugari dutela diote. Zenbaitzuegan dermatosia eragin dezakeela ohartarazten dute. Bestalde, aipatu behar da landare hau, primulazeoen artean erabilienetakoa dela lorategietan.



Udaberriaren bihotzean, udaberri-lore usainduna

Joxepo Terés*

* Naturalista.

FITXA TEKNIKOA

Udaberri lorea

Familia:	primulazeoak
Espezia:	<i>Primula veris</i>
Banaketa:	sakabanatua
Habitata:	oso biotopo desberdinak kolonizatzen ditu, bereziki hariztiak.
Sendabelarra:	bai

